AMETS eta URTEAREN SEKRETUAK

Leire Urkizu · Raquel Samitier

ADI NATURA

sua EDIZIOAK

© Elkar ArgitaletxeaK S.L. • Sua Edizioak
IPARRAGIRRE, 26 | 48011 Bilbao
Posta: sua@sua.eus | www.sua.eus | Telefonoa: 944 169 430

© Testuak: Leire Urkizu
© Ilustrazioak: Raquel Samitier

© Diseinua: Aurkene Etxebarria
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak

ISBN: 978-84-8216-961-3
Lege gordailua: D-953-2026

PEFC
PEFC/14-38-00338

2026ko urria

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Lan honetako zatiren bat fotokopiatu, eskaneatu edo digitalizatu behar baduzu, jo egizu CEDRO erakundera (www.cedro.org).

Euskal kultura hilabetez hilabete

Egutegiko hamabi hilabeteek gure kultura zaharraren arima eta oinarria non dagoen erakusten digute. Gure arbasoen eta naturaren arteko harremana dago horien oinarrian, hortik datoz egutegian topatzen ditugun hilabeteen izen gehienak, naturaren sasoiek eta urtaroek aginduta.

Naturak eman digunetik bizi izan gara beti, eta hark eskaintzen digunera moldatuz eta hortik ikasiz eratu ditugu ohiturak, herriak, egiteko moduak eta mundua ikusteko erak. Naturaren joan-etorriari behatuz sortu da gure bizimodua, gure kultura, gu geu, baita gure festak, sinesmen eta jainkoak ere. Naturara egokituz sortu dugu gure herria.

Eta horri buruz hitz egiten dugu liburu honetan. Ametsekin batera egingo dugu bidaia hilabetez hilabete.

Bazatoz?



Ametsek ez du gustuko amonaren baserrira joatea; aspertu egiten da. Baina amak erabakita dauka: han igaroko dituzte udako oporrak.
Baserrira iristean, amona beregana hurbildu da. Txanpon bat eta harri bat eman dizkio. Haserre dagoenez, Ametsek ez dio kasurik egin, baina poltsikoan gorde ditu. Baserri atzean dagoen askara joan da, bakarrik egon nahi du eta.



Halako batean, poltsikoan argi bat sumatu du. Gorde duen harriak bide bat argiztatzen du, eta hari jarraika basora sartu da.
Gorosti baten atzean, emakume bat dago, buruan txapel zuri berezia duela.
—Amets! Iritsi zara! —emakumeak.
—Zu… zu… Mari Domingi zara, ezta? —Ametsek, erabat harrituta.
—Bai, eta hemengo hau Olentzero da. Jantzi artilezko tokilla hau hoztu baino lehen. Gabon gaua da, eta intxaur-saltsa prestatu behar dugu.
“Gabon gaua? Ez geunden ba udako oporretan?”, Ametsek bere buruari.
Hiruren artean lan bikaina egin dute. Gogora etorri zaio amonak bildutako intxaurrekin aitonak eta biek askotan prestatutako intxaur-saltsa. Dagoeneko ahaztuta zuen.
—Gu hemen geratuko gara, baina zuk oraindik bide luzea duzu urteko hilabete bakoitzeko sekretuak argitzeko. Hartu ikatz zati hau, bidean aurrera egiteko baliagarria izango zaizu eta –esan dio Mari Domingik.

Zertarako erabiliko du Ametsek egur-ikatz zatitxo hori?

- ◯ Sua egiteko
- ◯ Kuttun bat egiteko
- ◯ Errekara botatzeko

Kuttun bat egiteko. Ez dakizu zer den? 11 eta 55. orrialdeetan azaldu dizugu!

ABENDUA LOTAZILA, NEGUILA, OTZAROA…

Hilaren 21ean edo 22an izaten da neguko solstizioa: urteko egunik motzena eta gaurik luzeena.

Gabonak

Antzina, Gabonetan argiaren etorrera ospatzen zen. Urteko egunik motzenak dira. Jaki bereziren bat prestatzen zuten egun horietarako. Baserrietan, intxaur-saltsa jatea zen ohitura.
Orduan ospakizun xumeagoak ziren, umeek opariren bat edo beste jasotzen zuten.



Olentzero

Basoan bizi den ikazkin hau
azken jentila omen da.
Garai batean, ikatza ekartzen
zuen etxeetara, janaria
prestatzeko eta etxea berotzeko.

Mari Domingi

Olentzerorekin batera
opariak banatzen ditu.
Landareak ondo ezagutzen
ditu, eta sendagaiak eta
ukenduak prestatzen ditu.



Gorostia

Hosto berde punta-zorrotzak ditu.
Ale gorriak dituenez, abenduan
Gabonetako apaingarri gisa erabiltzen
zen. Orain desagertzeko arriskuan dago,
eta babestuta!! Ez eraman etxera!!



Txondorrak

Ikatza nola egin: moztutako adarrak
makil luze baten inguruan pilatzen
zituzten; ondoren, lokatzaz estaltzen
zuten. Azpialdetik txondorra pizten
zuten. Ez zuen su
hartu behar; egosi behar zen,
pixkanaka-pixkanaka. Behin egosita,
ikatza prest zegoen.



Egur-ikatza poltsikoan sartzean, burua altxatu eta izaki txiki bat ikusi du.
Maritxu Teilatuko da!
—Txikitan, amonak esaten zidan eroritako hortza teilatura bota behar nuela, hortz berria hazteko. Eta honela kantatzen genuen:

Maritxu Teilatuko,
gona gorriduna,
eraman hagin zaharra
eta ekarri berria



—Bai, nik ekartzen ditut, eta haur jaioberriak ere zaintzen ditut —esan dio Maritxuk, patxada handiz —. Horretarako badakizu zer erabiltzen dudan? Aldean daramazu, ziur!
Poltsikotik egur-ikatza atera du Ametsek.
—Bai, horixe da behar duguna —esan dio Maritxuk. Oihal zati batekin eta ikatzarekin, jaioberriak babesteko kuttun bat egin dute bien artean.
Zintzarriak entzun dira urrutian.
—Urtarrilean gaude eta inauteriak martxan dira —azaldu dio Maritxuk—.
Joaldunak joareak gogoz astintzen hasi dira.
—Ziur zaude urtarrilean gaudela? —galdetu dio Ametsek, erabat nahastuta.
—Bai, noski, hauxe da urteko lehen hilabetea, oraintxe jaio da urte berria.
Gogoan izan, ni naiz jaioberrien zaindaria.
Maritxuk lokarri bat eman dio bidean aurrera egiteko, eta ondoko hau esan dio:
—Zure hurrengo bidaidea zein den jakiteko, honako bertso hau osatu beharko duzu.

Bete hitz egokiekin:

Zeruan eder .....
Ekialdetik mendebaldera behar du .....
Herri askotako jainko .....
hark erabakitzen du eguna noiz .....

jakintsu / argitu / argitsu / mugitu

Ordena egokia da: 1) argitsu / 2) mugitu / 3) jakintsu / 4) argitu

URTARRILA

URTEBERRILA,
IZOTZILA,
ILBELTZA



Bioleta

Neguaren erdialdean jaiotzen da. Usain gozodun lore honekin lurrinak egiten dituzte. Larruazala, urdaila nahiz eztarria goxatzeko baliagarria da. Edari freskagarriak egiteko ere erabiltzen da.

Inauteriak

Urtarrilean hasi eta batzuetan martxoa arte luzatzen dira, alegia, negua eta udaberria lotzen dituen festa da. Joaldunek joareak astintzen dituzte lurra esnatzeko, eta isipuekin izpiritu txarrak uxatzen dituzte. Ziklo bat itxi dugu, eta beste ziklo bati hasiera eman.



Maritxu Teilatuko

Haur txikiei eroritako hortzak teilatura bota behar dira. Maritxuk bildu eta zerura bidaltzen ditu. Han, izar bihurtuko dira.



Atsolorra

Garai batean, haurra jaiotako etxera joaten ziren auzoko emakumeak, arratsalde pasa, ama egin berriari laguntza eskaintzera. Eskerrak emateko, etxekoek askari edo merienda bat ematen zieten etorritakoei.

Kuttunak

Ume jaioberriei sehaskan edo lepotik zintzilik kuttun bat jartzeko ohitura zegoen. Begizko edo zorte txarretik babesteko dira. Oihalezko zakutxo batean txanpon bat edo ikatz zati bat sartzen zuten.



Bidean aurrera egin eta San Jose lore ugari ikusi ditu Ametsek inguruan. Makilak lurraren kontra astintzean sortzen den zarata entzun du urrutian, baita jendearen kantua ere. Santa Ageda bezperako koplak dira; aitonak beti kantatzen zituen.

"Santa Ageda bezpera dugu
Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko,
aukeratua duguna".



"Otsailean gaude? Badirudi urrats bakoitzeko hilabete bat aurreratzen dela…" pentsatu du Ametsek. Bidean kandela bat piztuta aurkitu du, amonak urtero Kandelario egunean pizten duenaren antzekoa. Ondoan, errezeta bat egiteko osagaiak daude.

—Poltsikoan duzun lokarria lepoan lotu, eztarria babesteko, eta osagaiak San Blas opila egiteko dira —ahots batek esan dio, bat-batean.

—Nor ari da hizketan? —galdetu du alde guztietara begira.

—Eguzki edo Ekhi deitzen didate. Udaberria oraindik urrun dagoen arren, otsailean argitasuna nagusitzen hasten da, eta gero eta denbora gehiago pasako dut zeruan —esan dio eguzkiak.

Eskertu du Ametsek eguzkiaren goxotasuna.

San Blas opilarekin oroitzapen goxoa etorri zaio gogora: San Blas eguneko azoka. Urtero joaten zen aitonarekin opilak erostera.

—Bidea jarraitu behar duzu —esan dio eguzkiak agur eginez, baina aurretik erronka txiki bat proposatu dio—. Nire kolore bera duen lore bat hartu beharko duzu aurrera egin ahal izateko.

Zein lore hartuko du Ametsek?

- ○ Bioleta
- ○ San Jose lorea
- ○ Bitxilorea

San Jose lorea